

ZERGATIK PANPOX?

Maddi Aiestaran Iparragirre

Beasain

Bazkalondoa da, Urtezahar-eguneko bazkalondoa, urteko azken bazkalondoa. Berandu hasi gara bazkaltzen, eta berandu amaitu dugu. Bostak dira jada, baina nagikeriak jota nago, sofan etzanda, apain jartzen hasteko indarririk gabe. Neure buruari sinestarazi nahi diot goizean *San Silvestrean* korrika egin izanaren ondorioz nagoela horrela, baina barru-barruan badakit ez dela nekeak eragindako nagikeria, beste zerbaitek eragindakoa baizik.

Giro aparta zegoen eguerdian, kalean. Jendea poz-pozik zebilen; urteko egun normaletan elkarri justu-justu kasu egiten dion jendea ikusi dut, bata besteari musuka, kontu-kontari, Errioxako ardo beltzik onenez betetako kopa distiratsuak eskuetan hartuta. Sekula ez dut jakin zein den gaurko egunez hain nabarmena den jokamodu bitxi horren zergatia. Koadrila ere pozez gainezka sumatu dut. Aurten, lehendabiziko aldia izango da Urtezahar-gauean urte berria ospatzera aterako garena. Gau zoragarria izango omen da. Aste osoan ez dugu beste hizketa-gairik izan koadrilan, solasaldi guzti-

guztiak “gau magiko” horren ingurukoak izan dira: Amaiak jantzi behar duen soinekoak eskote handi samarra dauka, eta kezkatuta dago, gaixoa. Nereak erosi dituen zapatek hamar zentimetroko takoia daukate, eta beldurrak airean dago, ez baitaki ibiltzen asmatuko duen ala ez. Ixiar ile-apaindegian izan da, eta ile-mozketa moderno-moderno bat egin diote. Maitek ezpainetako margo gorri-gorri bat erosi du, mutil guztiak aho zabalik utziko dituen; miraritsua omen da: ezpainak handiagoak egingen omen ditu, eta ez omen da horren erraz kentzen; behin emandakoan, gau osoa irauten omen du.

Nik ere prest daukat armairuan soinekoa, azken egun hauetan behin eta berriz armairura bisita egin diodan soinekoa; oso polita dela uste dut. Beltza da, nahiko motza, baina ez dauka Amaiaarenak bezain eskote handia. Hobe. Duela hiru aste erosi nuen, Donostian, arratsalde osoa amak eta biok dendaz denda igaro ondoren. A zer nolako arratsaldea pasa nuen, eta a zer-nolako arratsaldea pasarazi nion amari. Ez zitzaidan ezer gustatzen; hobeki esateko, ez zidan ezerk ondo ematen. Haserretu ere egin nintzen amarekin, errua berea izango balitz bezala (bai, aitortzen dut: jasangaitza naiz batzuetan). Azkenean, zortziak izateko ordu laurden bat besterik gelditzen ez zela, etsita, erakusleihen batean ikusi genuen soinekoa, anorexiadun maniki batean. Elkarri hitzik esan gabe, dendan sartu ginen. Donostiar neska lirain bat hurbildu zitzaigun, eta goxo-goxo hizketan hasi. Oso soineko polita zela, jantzita ere politagoa zela, eta

zortea izan genuela: erakusleihan zegoena niretzat txiki samarra zela, baina bazutela handixeago bat biltegian, nire neurrikoa. Desesperazioak eragindako ironiaren menpe, nire artean nioen: “Jantzita denei ederki ematen dien soinekora dela? Bai, bai, zuri bai, zuri ederki emango dizu, uraza bat buru gainean jarrita ere sekulakoa egongo zinatekete eta!”. Arrazoi pixka bat izan egingo zuen, ordea: arratsalde osoan, lehenengo aldiz, orduantxe ikusi bainuen ondo antzean neure burua. Noski, neska lirain hark jaurti zizkidan hitz goxoek eta losintzek ere lagunduko zidaten, momentu batez “Urtezahar-gaueko erregina” nintzela sinisten.

*WhatsApp*ren txistu-hotsak ustekabean harrapatu nau. “6etan, Plazapen! Denok panpox-panpox!”. Baina, baina... zazpietan esan dugu lehen! Ai ama! Bostak eta hamar dira, eta ni, oraindik, dutxatu gabe, ilea ondo jarri gabe, makillatu gabe... Sofatik bainugelara egin dudan korrikaldia *San Silvestrea* irabazi duen etiopiarrek lasterketa irabazteko egin behar izan duen esprinta baino are biziagoa izan da. Bidean arropa guztia kentzeko gai izan naiz, gainera. Telebistan horrenbeste aldiz iragartzen duten xanpua erosterakoan oparitu zidaten ile-egokitzailearen lagina amonak oparitutako poltsa marroiko poltsiko txikian sartu nuela gogoratu naiz, eta korrika logelara joan naiz, lagina hartzera (bidean, nola ez, izugarriko kolpea hartu dut hatz lodian). Orain, berriz, goiz askotan esne-kaxa ireki ezinik nabilenean izaten dudan sentimendu bera daukat: garrasi egiteko gogo. Zer demontretarako asmatu zuten marketin-

aholkulariek “abrefacil” terminoa? Metafora bat izango da, ezta?

Komeriak komeria, hamar minutuan dutxatu naiz. Bostak eta hogeia dira. Ile-lehorgailuak elektrifikatuta utzi dizkit puntak; neronek ere barrua halaxe daukadalako izango ote da? Beti berdin: gehien behar duzunean, dena gaizki ateratzen da. Lasai, Maialen, oraindik berrogei minutu dauzkazu, panpoxa-panpoxa jartzeko! Ilea lisatu behar dut lehenik. Ai! Plantxari gaizki heldu diot, eta ezker eskuko hatz txikia erre dut. Besterik ez genuen behar! Ur hotzetan ipini dut hatza, mina baretze aldera. Elektrizitatea iletik kentzea lortu dut, behintzat, eta gaitzerdi!

Bostak eta hogeita hamabost. Banoa jantera. Atera dut soineko txundigarria armairutik, baita atzo erosi nituen galtzerdi gris garestiak ere; oso ondo geldituko dira soineko beltzarekin. Kontu handiz hasi naiz janzten; hanka bat sartu, gero bestea... baina, baina, traketsa naiz, gero: urratua egin diet azazkalarekin. Ama!!!! Zer egin behar dut nik orain? Eskuetan beste galtzerdi pare bat duela sartu zait ama, logelan, minutu laurdena igaro baino lehen. Eskerrak! Amari kremaiera lotzeko esan diot. “Ezin dut itxi; trabatu egin da!” esan dit, urduri. Baina aise lortu du kremaierak goranzko bidea egitea. Bostak eta berrogei. Botinak atera ditut kaxatik; berri usaina daukate. Nerearen zapatek baino takoi txikiagoa dute, baina pixka bat badute. Nik ez dakit takoiekin ibiltzen. Arraro sentitzen naiz. Nola demontre pasa behar ditut horrenbeste ordu takoi hauen gainean?

Berriro ere txistu-hotsa: argazki bat da, oraingoan. Amaia da; liluragarri dago: “Ondo al nago?”. Bai, neska, zu beti zaude ondo! Mugikorra ohe gainera bota dut, eta bainugelara noa berriro. Urtezahar arratsaldeko zereginik korapilatsuenari ekin behar diot: makillatzeari. Amaren krema eman dut, eta gainean, beltzarantzeko hautsak. Begi politak ditut, eta horrentantxe jarri behar dut arretarik handiena: lehenik goiko marra margotu dut, eta gero behekoa; azkenik, errimel pixka bat eman dut. Eta amaitzeko, ezpainetakoa eman dut, gorri-gorria, Maiterena bezalakoa.

Bostak eta berrogeita hamar. Logelarako bidean, ahizpa txikiak eta biok tupust egin dugu: “arraro zaude!” esan dit. Entzungor eginez, logelako atea itxi dut. Prest nago. Arnasa sakon hartu, eta ispiluaren aurrean jarri naiz. Aurretik, atzetik, albo batetik; aurretik, atzetik, beste albotik; aurretik, atzetik, aurretik,... Ez dut ezagutzen ispiluan ikusten dudan hori; ez dakit nor den. Ez naiz ni! Ez nago prest. Ez.

Bostak eta berrogeita hamalau. Arropak kenduta nago, armairura begira. Eguneroko praka bakeroak, kamiseta txuri bat eta erabiliaren erabiliaz sitsak janda dagoela dirudien jaka beltz bat atera ditut armairutik; baita horren gogoko ditudan unai-botak ere. Ederki ematen dit denak. Iragan uztailean aita-amek Italiatik ekarri zidaten zetazko zapi gorri bat jarri dut, lepoan, buelta pare bat emanda. Are ederragoa nago orain.

Bostak eta berrogeita hamazortzi. Banoa, gustura, Urtezaharra eta Urteberria ospatzera. Amaren irribatza

rreak dena esan dit: harro dago nitaz, eta ni ere
harro nago neure buruaz.

Udazkena